



Lana / La obra

1985eko azaroaren 26an, Mikel Zabaltza, haren neska-laguna, lehengusua eta liburu honen egilea atxilotu zituzten.

Elkar ezagutzen ez bazuten ere, ETAko komando bereko kide izatea leporatzen zien Guardia Zibilak, eta haiei egozten zien Pasaiaiko portu inguruan ordu batzuk lehenago hildako bi militarren eta guardia zibil baten heriotza.

Arretxek prosa soil eta gordinez kontatzen digun moduan, ohetik altxarazi orduko mendira eraman zuten; hondakinak jasotzeko erabiltzen diren plastikozko bi zakutan sartu zuten, momia baten antzera biltzeko zintaz estutu zuten, eta galdekatu egin zuten, behin eta berriz murgilaraziz burua ibai batean.

Intxaurrondo, intxaurraren hostopeko itzala liburua Lege Antiterroristaren babespean tortura eta izua bizi izan zituen 21 urteko gazte baten lekukotasuna ematen digu, lehenengo pertsona kontatua.

Historia ausarta, beharrezkoa, literatur balio anitz dituen eta protagonista guztiek kontaktzerik izan ez dutena, zoritxarrez.

Fitxa tekniko / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Intxaurrondo. Intxaurraren hostopeko itzala**

Egilea / Autora: **Ion Arretxe Gutiérrez**

Saila / Colección: Narratiba, 131

ISBN / EAN: 978-84-9109-697-9

Salneurria / Precio: 18 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orrri kopurua / Nº páginas: 232

Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 23 x 15 cm

Materia: Helduentzako literatura - Literatura para adultos



Egilea / El autor

Ion Arretxe Gutiérrez (Errenteria, 1964 - Madril, 2017) marrazkilari eta eszenografo gisa hasi zen lanean. Hain zuzen ere, kolaborazioak egin zituen *Egin* egunkarian, Euskal Herriko herri organismo askotan –marrazkiak, kartelak eta horma irudiak– eta *Orain*, *Kukubiltxo* eta *Sebastopoleko Titiriteroak* antzerki taldeetan.

Gidoiak idatzi eta marrazkiak sortu zituen *El Víbora*, *Ipurbeltz*, *TMO*, *Aizu!*, *El Jueves*, *Punto y Hora* aldizkarietarako, besteak beste, baita zenbait liburu ilustratu ere.

1990az gerostik, arte zuzendari modura lan egin zuen zinema eta telebistako filmetan (*Todo es mentira*, *Éxtasis*, *La vida de nadie*, *Zeru horiek*, *Rincones del paraíso*, *Pídele cuentas al rey*, *Platillos volantes*, *Marujas asesinas*, *Locos por el sexo*, *Sukalde kontuak*, *La soledad*, *Tiro en la cabeza*, *Entrelobos*, *Summertime...*).

Cuando todo esté en orden filmeko gidoia idatzi zuen, Carlos Pérez Merinerorekin batera.

La guitarra invisible, *Arturo hijo* eta *El esqueleto de Bergamín* film laburrak zuzendu zituen.

Tenía un novio en Alsasua eta *El hijo de la Pili* kantuen egilea da.

Errenteriako *Oarso* aldizkariaren ohiko kolaboratzailea izan zen.